Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko martxoaren 29a, asteazkena — 62 — Miércoles, a 29 de marzo de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Hautaketa Bulegoa - Pertsonen Zuzendaritza

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017/03/21ean honako erabaki hauek hartu zituen:

«2004ko urriaren 13ko 190/2004 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuena) ezarrita dago, 8. artikuluan, Administrazio bakoitzak onartu ahalko dituela, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, lehiaketa orokor edo espezifikoetarako deialdiei dagozkien elementu komunak arautuko dituzten esparru oinarriak.

Donostiako Udaleko funtzionarientzat gordetako lanpostuak lehiaketa espezifikoaren bidez behin betiko betetzeko deialdien esparru oinarriak Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko maiatzaren 18an onartu zituen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2012ko maiatzaren 24an, aldizkariaren 98. zk.an.

Pertsonen Zuzendaritzak testu berri bat onartzea bultzatu du. Testu horrek kontuan izan nahi ditu, alde batetik, izan diren prozesuetan nabaritu diren hobekuntza beharrak; eta, bestetik, indarrean diren esparru oinarrien indarraldia hasi eta gero onartu diren arau aldaketak.

Araudiaren aldaketa aipagarrienak honako hauek izan dira:

— 2015eko urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea.

— 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea.

— 1996ko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua, 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak egindako aldaketaren ondoren.

Esparru oinarriak langileen ordezkariekin negoziatu dira.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 127. artikuluaren h) atalaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena da lanpostuak betetzeko deialdien oinarriak onartzea.

Horregatik guztiagatik, Lehendakaritzako eta Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkariak, 2015eko ekainaren 19ko Gobernu Batzarraren akordioaren bidez emandako eskumenak erabiliz eta Pertsonen Zuzendariak proposatuta, Gobernu Batzarrari proposatzen dizkio honako.

ERABAKIAK

*Lehenengoa.* Donostiako Udaleko lanpostuak lehiaketa espezifikoaren bidez behin betiko betetzeko deialdietarako esparru oinarriak onartzea.

*Bigarrena.* Aipatu esparru oinarriak argitaratutakoan, egun horretatik bertatik aurrera onartzen diren deialdietarako oinarri horiek aplikatu behar direla ezartzea.

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Negociado de Selección - Dirección de Personas

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, con fecha 21/03//2017, acordó lo siguiente:

«El artículo 8 del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, establece que cada Administración podrá aprobar, tras negociación con la representación del personal, unas bases marco que regularán los elementos comunes a las correspondientes convocatorias de concursos generales o específicos.

Las bases marco que vienen regulando las convocatorias para la provisión definitiva, por concurso específico, de puestos de trabajo reservados a personal funcionario del Ayuntamiento de San Sebastián, fueron aprobadas por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 18 de mayo de 2012 y publicadas en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, n.º 98, de fecha 24 de mayo de 2012.

La Dirección de Personas ha impulsado la aprobación de un nuevo texto que tenga en cuenta, por un lado, las necesidades de mejora detectadas en el transcurso de los diferentes procesos que han tenido lugar y, por otro lado, las modificaciones normativas aprobadas con posterioridad a las bases marco vigentes.

Las modificaciones normativas más significativas han sido las siguientes:

— Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

— El apartado 5 del artículo 13 de la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, tras la modificación introducida por la Ley 26/2015, de 28 de julio.

Las bases marco han sido objeto de negociación con la representación del personal.

De conformidad con el contenido del artículo 127, apartado h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, es competencia de la Junta de Gobierno Local la aprobación de las bases de las convocatorias de provisión de puestos de trabajo.

En su virtud, el concejal delegado de Presidencia y Transparencia, Recursos Humanos e Innovación, en uso de las atribuciones que le están conferidas por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 19 de junio de 2015, y a propuesta de la Directora de Personas, propone a la Junta de Gobierno los siguientes.

ACUERDOS

*Primero.* Aprobar las bases marco de las convocatorias para la provisión definitiva, por concurso específico, de puestos de trabajo del Ayuntamiento de San Sebastián.

*Segundo.* Establecer que una vez publicadas las citadas bases marco, éstas serán de aplicación a las convocatorias que se aprueben a partir de esa misma fecha.

EK\CV GAO-I-2017-02117

*Hirugarrena.* Esparru oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea».

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2017ko martxoaren 23a.—Ana Salustiano Esnoz, Pertsonen zuzendaria. (2117)

*Donostiako udaleko lanpostuak lehiaketa espezifikoaren bidez behin betiko betetzeko deialdietarako esparru oinarriak.*

*Lehenengoa. Xedea eta aplikazio eremua.*

1. Oinarri hauek aplikatu beharko dira Donostiako Udalean funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak behin betiko betetzean, baldin funtzionario horiei emandako zereginen izaeragatik ezaguera edo trebetasun espezifikoak balioztatu behar badira.

Esparru oinarri hauetan xedatutakoak arautuko ditu lehiaketa espezifikoko prozedurak. Hain zuzen, oinarriok deialdi guztienak diren elementuak arautuko dituzte, eta, hori osatzeko, deialdi bakoitzean oinarri partikularrak onartuko dira.

2. Oinarri partikularrek honako hauek izango dituzte:

a) Lanpostuen deskribapena: funtsezko zereginak.

b) Zenbakia, izena, maila, berariazko osagarria, hizkuntza eskakizuna eta, halakorik badagokio, nahitaezkotasun data.

c) Lanpostuan jarduteko eskatzen diren betekizunak, lanpostuen zerrendan ezarritakoarekin bat.

d) Balioztatuko diren merezimenduak eta dagozkien baremoa, zortzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

e) Oroitidazkiak, proiektuak, probak, elkarrizketak, test psikoteknikoak edo merezimenduak egiaztatzeko bestelako sistemak egingo direla adieraztea, halakorik egingo bada.

f) Beste erakunde edo Herri Administrazio batzuetako karrerako funtzionarioek parte hartzeko aukera, aukera hori baldin bada.

g) Lehiatzaileek gehienez eska dezaketen destino kopurua, hala badagokio.

h) Esparru oinarri hauetako bederatzigarreneko 2.a) idatz zatian ezarritako ondorioetarako, hala badagokio, emakumeei lehentasuna ematea, deialdiko lanpostuak betetzean, esleitua duten azpieskala, klase edo kategorian den emakume kopuruaren eta haien mailaren arabera.

*Bigarrena. Parte hartzeko betekizunak eta baldintza orokorrak.*

1. Lehiaketetan parte hartu ahalko dute karrerako funtzionarioek, deialdia Espainiako Aldizkari Ofizialean (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*) argitaratzen den egunean baldintza hauek betetzen badituzte: lanpostuen zerrendetan eta deialdik esparru oinarri eta partikularretan zehaztuta dauden baldintzak; eta Euskal Autonomia Erkidegoko langile funtzionarioen postuak betetzeko arautegian (2004ko urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaz onartua) ezarritako baldintzak.

*Tercero.* Publicar las bases marco en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa».

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 23 de marzo de 2017.—La directora de Personas, Ana Salustiano Esnoz. (2117)

*Bases marco de las convocatorias para la provisión definitiva, por concurso específico, de puestos de trabajo del Ayuntamiento de San Sebastián.*

*Base Primera. Objeto y ámbito de aplicación.*

1. Las presentes bases serán de aplicación a la provisión definitiva de puestos de trabajo reservados a personal funcionario en el Ayuntamiento de San Sebastián, cuyas tareas requieran la valoración de conocimientos o destrezas específicas derivadas de la naturaleza de las funciones encomendadas a los mismos.

Los procedimientos de concurso específico se regirán por lo dispuesto en estas Bases Marco y se completarán con las bases particulares que se aprobarán para cada convocatoria.

2. Las bases particulares contendrán:

a) Descripción de los puestos: funciones esenciales.

b) Número, denominación, nivel, complemento específico, perfil lingüístico y, en su caso, fecha de preceptividad.

c) Los requisitos exigidos para su desempeño conforme a lo establecido en la relación de puestos de trabajo.

d) Méritos a valorar y su correspondiente baremo, con arreglo a lo establecido en la base octava.

e) La previsión cuando sea pertinente, de la realización de memorias, proyectos, pruebas, entrevistas, tests psicotécnicos u otros sistemas de acreditación de méritos.

f) Posibilidad de participación, en su caso, de funcionarios/as de carrera pertenecientes a otros organismos o Administraciones Públicas.

g) En su caso, número máximo de destinos que los/as concursantes pueden solicitar.

h) En su caso, a los efectos previstos en la base novena, apartado 2.a) de las presentes Bases Marco, la prioridad de la mujer en la provisión de los puestos convocados en función de su representación en la subescala, clase o categoría a la que se hallen reservados y al nivel de los mismos.

*Base Segunda. Requisitos y condiciones generales de participación.*

1. Podrá tomar parte en los concursos el personal funcionario de carrera que, en la fecha de la publicación de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*, cumpla los requisitos determinados en las relaciones de puestos de trabajo y en las bases marco y particulares de la convocatoria, además de las condiciones establecidas en el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, aprobado por Decreto 190/2004, de 13 de octubre.

EK\CV GAO-I-2017-02117

2. Betekizunak betetzen jarraitu beharko da, esleitutako lanpostuen kargu hartzera arte.

3. Ezingo dute lehiaketetan parte hartu:

a) Donostiako Udaleko karrerako funtzionario ez direnek oinarri partikularretan ezarritakoaren arabera, lanpostuen zerrendan zehaztutakoaren arabera.

b) Aurreko bi urteetan lehiaketa bidez lortutako lanpostu baten kargu hartu ez duten langile funtzionarioek. Berdin dio zein duen jatorriko Administrazioa eta zein kidegotatik parte hartzen duen. Epe horren mugatik salbuetsita daude lehiaketa bidez lortutako lanpostu horrekiko atxikipena galdu duten langileak.

c) Eginkizun gabetze irmoan diren langile funtzionarioak, egoera horrek dirauen bitartean.

d) Interes partikularragatik edo familia elkartzeagatik borondatezko eszedentzian diren langileak, baldin berriz sartzeko eskatzen zaien gutxieneko denbora igaro ez bada.

4. Behin-behineko destinoa duten funtzionarioek, egoera horretan diren bitartean, bere kidegoko eta eskalako lanpostuak betetzeko deitzen diren lehiaketetan parte hartu beharko dute. Betebehar hori ez betetzeak berekin dakar udal Administrazioak –interesatuari entzun eta gero– deialdiaren ondoren hutsik geratu diren lanpostu bat esleitzea ofizioz.

5. Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan aritzeko, bete beharreko baldintza izango da epai irmo bidez sekula kondenatua ez izana sexu askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik, hala nola, sexu erasoa eta sexu abusua, sexu jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa, adingabeak galbideratzea eta gizakien salerosketa.

Betekizun hori exijitu beharreko deialdietan, berariaz aditzera emango da oinarri partikularretan.

Deialdi baten oinarri partikularretan aditzera ematen bada oinarri honetan ezarritako baldintza bete behar dela, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko da, deialdian parte hartzeko eskaerarekin batera.

*Hirugarrena. Eskabideak.*

1. Deialdietan parte hartzeko eskabideak udal honetako Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, 15 egun balioduneko epean. Lanpostuen deialdiaren iragarkia Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori. Era beran, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak adierazitako edozein tokitan ere aurkeztu daitezke. Hala ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 2015eko urriaren 1ekoak, erregistro elektronikoaz aurreikusitakoa indarrean sartzen denean, interesatuek Udalari aurkezten dizkioten dokumentuak lege horretako 16.4 artikuluan adierazitako tokietan aurkeztu ahal izango dira.

Correos konpainiaren bulegoetan aurkezten diren parte hartzeko eskabideak gutun azal irekian entregatuko dira, Correosko langileek data eta zigilua jar diezaieten, ziurtatuak izan baino lehen, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Kasu honetan bakarrik joko da eskabideak Posta bulegoan entregatu ziren egunean aurkeztu direla Udalaren Erregistro Orokorrean. Eskabidea da zigilua izan behar duena.

2. Eskabideak egiteko, dokumentu normalizatua erabiliko da. Dokumentu hori eskuratzeko bideak: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (dagokien oinarri partikularrekin batera argitaratuko den eredua); Notesreal/Udala datu basea; edota udaletxean (Ijentea

2. El cumplimiento de los requisitos deberá mantenerse hasta la toma de posesión de los puestos adjudicados.

3. No podrán tomar parte en los concursos:

a) Quienes no ostenten la condición de funcionario/a de carrera de acuerdo con lo previsto en las bases particulares, en función a lo que determine la relación de puestos de trabajo.

b) El personal funcionario que haya tomado posesión en los dos años anteriores en un puesto obtenido en concurso, con independencia de la administración de origen o del cuerpo desde el que participe. Este límite temporal se exceptúa cuando el personal haya perdido la adscripción al puesto obtenido en concurso.

c) El personal funcionario que se encuentre en suspensión firme de funciones, mientras dure esta situación.

d) El personal que, encontrándose en excedencia voluntaria por interés particular o por agrupación familiar, no haya permanecido el tiempo mínimo exigido para reingresar.

4. El personal funcionario con destino provisional vendrá obligado, en tanto permanezca en dicha situación, a participar en los concursos que se convoquen para la provisión de puestos propios de su cuerpo y escala. El incumplimiento de ésta obligación llevará aparejada la asignación de oficio por la Administración municipal, previa audiencia del/la interesado/a, de uno de los puestos que resultaren vacantes tras la convocatoria.

5. Será requisito para acceder a puestos de trabajo que supongan el ejercicio de profesiones, oficios y actividades que impliquen contacto habitual con menores, el no haber sido condenado por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual, que incluye la agresión y abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo y provocación sexual, prostitución y explotación sexual y corrupción de menores, así como por trata de seres humanos.

En las convocatorias en las que resulte exigible el cumplimiento del citado requisito se señalará expresamente en las bases particulares.

En el supuesto de que en las bases particulares de una convocatoria se señale que es exigible el requisito establecido en el presente apartado, se deberá aportar, junto con la solicitud para participar en el proceso, una certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales.

*Base Tercera. Solicitudes.*

1. Las solicitudes para participar en la convocatoria se presentarán en el Registro General de este Ayuntamiento, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria de los puestos en el *Boletín Oficial del Estado*. Las instancias también podrán presentarse en cualquiera de los lugares que señala el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. No obstante, una vez entren en vigor las previsiones relativas al registro electrónico de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, los documentos que los/as interesados/as dirijan al Ayuntamiento podrán presentarse en los lugares que señala el artículo 16.4 de la citada Ley 39/2015.

Las solicitudes de participación que se presenten en las Oficinas de Correos se entregarán en sobre abierto, para ser fechadas y selladas por el personal de Correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro General del Ayuntamiento en la fecha en que fueron entregadas en la Oficina de Correos. La instancia es la que debe estar sellada.

2. Las solicitudes se formalizarán en documento normalizado al que se podrá acceder a través del modelo publicado en el Boletin Oficial de Gipuzkoa junto con las bases particulares correspondientes, en la Base de Datos Notesreal/Udala, o en


EK\CV GAO-I-2017-02117

kalea, 1) den udal informazio bulegoak (Udalinfo) emandako inprimakia. Eskabidearekin batera, merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu behar dira eta, hala badagokio, parte hartzeko baldintzak betetzen direla adierazten duten agiriak Donostiako Udalaren esku ez daudenean.

3. Lanpostu bat baino gehiago lortzeko aukera izan nahi duenak, lehiatzen den lanpostuei ematen dien lehentasun ordena adierazi behar du eskabidean.

4. Behar bezala egiaztatutako ezgaitasunen bat duten izangaiek, lanpostua egokitzea eska dezakete, bai eta probak egiteko denbora eta bitartekoak egokitzea eta doitzea ere.

Balioztatze Batzordeak erabakiko du lanpostua eta probak eskatzailearen ezgaitasunari egokitzearen bidezkotasuna, bai eta, hala egokituz gero, lanpostu zehatz horretako zereginak eta eginkizunak betetzearekiko bateragarritasuna. Hori erabakitzeko, batzordeak interesatuari eskatuko dio egokitzapena egiteko beharrezko jotzen duen informazioa. Orobat, Enpresa Medikuntzako Atalaren irizpena eskatuko du, eta dagokien organo teknikoena ere, egokitzapenaren bidezkotasunari buruz eta deialdiko lanpostuko zereginak eta eginkizunak betetzearekiko bateragarritasunari buruz. Era berean, eragindako lanpostuko arloko zuzendaritzak txostena egingo du, eskatu den lanpostu egokitzapena egin ote daitekeen.

*Laugarrena. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzea.*

1. Deialdiko oinarri partikularretan ezarritako merezimenduak alegatzeko, oinarri horiei erantsitako eredu normalizatua erabiliko dute lehiatzaileek. Eredu horren atalak beteko dituzte, eta harekin batera aurkezten den egiaztagiriaren zenbakia adieraziko dute (edo, hala egokituz gero, udal espediente pertsonalean badela aipatuko da). Ondorio horietarako, ekarritako dokumentuak elkarren hurrengo zenbakiz markatu behar dira eta originalak edo benetako kopiak izan behar dira.

Ez da beharrezkoa izango Donostiako Udalak lehiatzaileari buruz duen espediente pertsonalean diren merezimenduen egiaztagiriak aurkeztea; halakoetan, dokumentu horiek alegatzea aski izango da horiek kontuan hartzeko.

Balioztatze Batzordeak, hautapen prozesuan, jatorrizko dokumentuak eska ditzake; bai eta, zalantzarik izanez gero, merezimenduak behar bezala balioztatzeko beharrezko jotzen duen beste edozein dokumentu ere.

2. Merezimenduak egiaztatzeko, zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabil daiteke. Eta, bereziki, honela froga daitezke:

a) Titulu akademiko ofizialetarako, tituluaren edo tasak ordaindu ondoren jasotzen den eskabide frogagiriaren originala edo benetako kopiaren bidez.

b) Heziketa ikastaroetarako, antolatu duen erakundearen egiaztagiriaren originala edo benetako kopiaren bidez. Berariaz adierazi behar da ikastorduen kopurua. Ikastaroak kreditu kopuruaz baizik adierazten ez badira, ulertuko da kreditu bakoitzak hamar ordu balio duela.

Ez dira balioetsiko ordu edo kreditu kopurua berariaz adierazten ez duten egiaztagiriak.

c) Antzinatasuna, gradu pertsonal finkatua eta Donostiako Udalean betetako lanpostuak udaleko Pertsonen Zuzendaritzak egiaztatuko ditu.

d) Beste Herri Administrazio batzuetan eginiko karrera profesionala egiaztatzeko, Herri Administrazio horiek emandako egiaztagiriak erabiliko dira. Horietan, zehaztuta agertuko dira izandako lanpostuak, lanpostuei esleitutako funtsezko zereginak, ordainsari maila, eta lanpostu bakoitzean egindako denbora.

impreso facilitado por la oficina de información municipal (Udalinfo) de la Casa Consistorial (Ijentea, 1). Junto con la solicitud se presentarán los documentos de alegación y de acreditación de méritos y, en su caso, los documentos acreditativos de los requisitos de participación que no se encuentren en posesión del Ayuntamiento de San Sebastián.

3. Si se desea optar a más de un puesto de trabajo, las solicitudes deberán contener el orden de preferencia entre los puestos de trabajo a los que se concurre.

4. Los/as aspirantes con alguna discapacidad debidamente acreditada podrán instar la adaptación del puesto, así como adaptaciones y ajustes de tiempo y medios para la realización de las pruebas.

La procedencia de la adaptación del puesto y de las pruebas a la discapacidad del/la solicitante, así como, en su caso, la compatibilidad con el desempeño de las tareas y funciones del puesto concreto, será apreciada por la Comisión de Valoración, y para ello recabará del/la interesado/a la información que estime necesaria en orden a la adaptación deducida, así como el dictamen de la Sección de Medicina de Empresa y de los órganos técnicos correspondientes respecto a la procedencia de la adaptación y de la compatibilidad con el desempeño de las tareas y funciones del puesto convocado. Asimismo, la Dirección de área a la que pertenezca el puesto afectado emitirá el informe sobre la posibilidad de adaptación del puesto solicitada.

*Base Cuarta. Alegación y acreditación de méritos.*

1. Los méritos previstos en las bases particulares de la convocatoria se alegarán por los/las concursantes en el modelo normalizado anexo a las mismas, cumplimentando sus diferentes apartados e indicando el número del documento acreditativo que se acompaña o, en su caso, la referencia a su constancia en el expediente personal en el Ayuntamiento. A estos efectos, la documentación aportada deberá estar numerada de forma correlativa. Los documentos que se aporten deberán ser originales o copias auténticas.

No será preciso aportar documentación acreditativa de los méritos que obren ya en el expediente personal del/la concursante en el Ayuntamiento de San Sebastián, en cuyo caso bastará su alegación para ser tenidos en cuenta.

La Comisión de Valoración se reserva la posibilidad de solicitar durante el proceso selectivo la documentación original, así como, en casos de duda, cualquier documentación complementaria que considere necesaria para la correcta valoración de los méritos.

2. La acreditación de los méritos se realizará por cualquier medio de prueba admitido en derecho y, en particular:

a) Para titulaciones académicas oficiales, mediante original o copia auténtica del título o resguardo de su solicitud tras el abono de las tasas.

b) Para los cursos formativos, mediante original o copia auténtica de la certificación de la entidad organizadora con indicación expresa del número de horas lectivas. Cuando los cursos vinieran expresados únicamente en créditos se entenderá que cada crédito equivale a diez horas.

No se valorarán aquellas certificaciones en las que no aparezca de forma expresa el número de horas o créditos.

c) La antigüedad, el grado personal consolidado y los puestos de trabajo ocupados en el Ayuntamiento de San Sebastián, se certificarán por la Dirección de Personas del mismo.

d) La carrera profesional desarrollada en otras Administraciones Públicas, se acreditará mediante certificaciones emitidas por las mismas en la que se detallen los puestos desempeñados, funciones esenciales asignadas a los mismos, nivel retributivo, y el periodo de tiempo de desempeño de cada uno de los mismos.

e) Euskarako jakintza egiaztatzeko, zazpigarren oinarrian ezarritako bidea erabiliko da.

3. Adierazitako eran alegatzen edo egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko.

4. Urteen, seihilekoen edo hilabeteen arabera balioztatzen diren merezimenduak kalkulatzeko, alegaturiko aldiak batuko dira, egun kopuruak kontuan hartuz; eta, ondoren, erreferentziazko aldia baino txikiagoak diren hondarrak baztertuko dira. Horren ondorioetarako, urtea 365 egun naturalen batura da; seihilekoa, 180 egun naturalen batura; eta hilabetea, 30 egun naturalen batura.

5. Merezimenduak eta parte hartzeko betekizunak balioztatzeko erreferentziatzat, deialdiaren iragarkia Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna hartuko da. Hala ere, euskarako jakintzak egiaztatzeko eguna geroratu egingo da, prozeduraren barruan ezarritako probak egin arte. Dena den, euskararen proba egitera deitzen bada, euskararen ezagutza egiazatatzeko data euskararen lehenengo proba egin arte luzatuko da.

*Bosgarrena. Izangaiak onartzea.*

1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, eskumena duen udal organoak ebazpena emango du, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko. Hamar egun balioduneko epea izango da, baztertzea eragin duten akatsak edo hutsegiteak konpontzeko, edota zerrenden aurkako erreklamazioak egiteko. Ebazpen hori Udalaren iragarki taulan eta Notesreal/Udala datu basean argitaratuko da.

Aipatutako taulan eta datu basean argitaratuko dira prozedurako egintzak argitalpenak egiteko beste euskarririk ezarri ez det kasuetan. Horrez gainera, beste euskarri osagarriak erabili ahalko dira.

Dena den, beste Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioak parte hartzea onartzen den deialdietan prozesuko iragarkiak, aurreko paragrafoan eta esparru oinarri hauetako beste ataletan adierazitako tokietan argitaratzeaz gain, Donostiako Udaleko web orrian argitaratuko dira.

2. Erreklamaziorik edo zuzenketarik aurkezten ez bada, behin–behineko zerrenda, zuzenean, behin betiko zerrenda bihurtuko da. Erreklamaziorik izanez gero, beste ebazpen bat emango da erreklamazioak onartzeko edo baztertzeko. Ebazpen horren bidez, gainera, behin betiko zerrenda onartu, eta esandako eran argitaratuko da.

*Seigarrena. Balioztatze Batzordea.*

1. Balioztatze Batzordeak gutxienez bost kide izango ditu, idazkaria barne. Eskumena duen udal organoak izendatuko du, jarduketak hasi aurretik, eta Udaleko iragarki taulan eta Notesreal/Udala datu basean argitaratuko da.

Idazkariak hitza eta botoa izango ditu.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak deialdian ezarritako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko izango diren probetako Balioztatze Batzordeko kide bat izendatuko du.

2. Balioztatze Batzordeko kideek karrerako funtzionarioak izan behar dute, deialdiko lanpostuko titulazio taldekoak, edo goragoko talde batekoak. Ahaleginak egingo dira, batzordeko kideen erdiak, gutxienez, deialdiko lanpostuen funtzio arloan zereginak egindakoak edo arlo horretako jakintzak dituztenak izan daitezen.

Batzordeko kideek eta aholkulari espezialistek jarduteari uko egin beharko diote, edota interesatuek edozein unetan ezetsi ahal izango dituzte, baldin eta 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 23 artikuluan ezarritako egoeraren bat gertatzen bada edo dago-

e) El conocimiento del euskera se acreditará en la forma establecida en la base séptima.

3. No serán objeto de valoración los méritos no alegados o no acreditados en la forma indicada.

4. Aquellos méritos que se valoren en función del tiempo transcurrido por períodos de años, semestres o meses, se computarán realizando la suma en días de los períodos alegados, y una vez realizada la misma, despreciándose las fracciones inferiores al período de referencia. A estos efectos se entenderá por año, la suma de 365 días naturales; semestre, la suma de 180 días naturales y mes, la suma de 30 días naturales.

5. Los méritos y requisitos de participación se valorarán con referencia a la fecha de la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Estado. No obstante, en caso de que se convoque la prueba de euskera, la fecha de acreditación del conocimiento de euskera se diferirá hasta la fecha de realización de la primera prueba de euskera.

*Base Quinta. Admisión de aspirantes.*

1. Expirado el plazo de presentación de instancias el órgano municipal competente dictará Resolución aprobando la lista provisional de aspirantes admitidos/as y excluidos/as, concediéndose un plazo de 10 días hábiles para la subsanación de defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión, o para plantear reclamaciones contra las listas. Dicha resolución será publicada en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la base de datos Notesreal/Udala.

El citado tablón y la mencionada base de datos serán los medios de publicidad para los actos del procedimiento para los que no se hayan previsto otros medios de publicación; sin perjuicio de poder utilizar otros medios adicionales.

No obstante, en los procesos en los que se permita participar a funcionarios/as de carrera de otras Administraciones Públicas los anuncios relativos al proceso se publicarán, además de en los medios citados en los párrafos anteriores y en otros apartados de las presentes Bases Marco, en la página web del Ayuntamiento de San Sebastián.

2. La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones o subsanaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública en la forma indicada.

*Base Sexta. Comisión de Valoración.*

1. La Comisión de Valoración estará constituida por un mínimo de cinco miembros, incluyendo al/a Secretario/a. Su nombramiento se efectuará por el órgano municipal competente antes del inicio de las actuaciones y se hará público en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en Notesreal/Udala.

El/la Secretario/a actuará con voz y voto.

El Instituto Vasco de Administración Pública designará una persona que formará parte de la Comisión de Valoración para las pruebas destinadas a acreditar los perfiles lingüísticos exigidos en la convocatoria.

2. Los/as integrantes de la Comisión, deberán ser funcionarios/as de carrera de igual o superior grupo de titulación al que esté adscrito el puesto convocado, y se procurará que al menos la mitad hayan desempeñado funciones o posean conocimientos del área funcional de los puestos convocados.

Los/as componentes de la Comisión de Valoración y los/as asesores/as especialistas deberán abstenerse de actuar, o podrán ser recusados/as en cualquier momento por las personas interesadas, si concurre alguno de los motivos de abstención previstos en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octu-

EK\CV GAO-I-2017-02117

kion deialdia argitaratu aurretiko bost urteetan hauta probetarako izangaiak prestatzeko lanetan aritu badira kide eta aholkulari horiek.

Epaimahaia eratzeko bilkuran, Balioztatze Batzordeko buruak egoera horietako batean ere ez izatearen adierazpen formala egingo du, eta ondoren gainerako kideei galdatuko die horrexen adierazpen formala egin dezaten. Eratzeko bilkuran parte hartu ez duten Batzordeko kideek, eta aholkulari espezialistek, adierazpen formal hori egingo dute parte hartzen duten lehendabiziko bilkuran.

3. Balioztatze Batzordeak aholkulari espezialistak izenda ditzake bere lanetan laguntzeko. Aholkulari espezialistek hitza izango dute, baina ez botoa, eta beren espezialitate teknikoetan laguntzera mugatuko dute beren jarduna.

Dena den, elkarrizketak, testak edo bestelako probak egitea aurreikusia duten deialdietan, langile espezializatuek egingo dituzte proba horiek. Langile horiek hitza izango dute, baina ez botoa Balioztatze Batzordeko kideak ez direnena. Deialdiko oinarri partikularrek zehaztuko dute Batzordeko kide ez direnen jarduketa araubidea.

4. Balioztatze Batzordearen osaerak kide egokiak eta prestatuak izatea bermatuko du, bai eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua ere, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 18an onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeko 20. artikuluko 6. idatz zatian ezarritakoari jarraituz.

5. Balioztatze batzordeek eskukotasun, eskumenekotasun tekniko eta objektibotasun osoz jardungo dute, eta haien proposamenak lotesleak izango dira Administrazioarentzat.

Nahiz eta balioztatze batzordeek eskumenekotasun teknikoz jardungo duten, haien ebazpenek arrazoituak izan behar dute, arauekin eta deialdietako oinarriekin bat etorrita.

6. Esparru oinarri hauetan, dagokien oinarri partikularretan, 2004ko urriaren 13ko 190/2004 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko langile funtzionarioen postuak betetzeko arautegia onartu zuen) eta 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 15. artikulutik 18.era bitartean ezarritakoak arautuko du balioztatze batzordeen eraketa eta jarduera.

Balioztatze Batzordeko kideak lehendakariaren aginduz bilduko dira, aldez aurretik idazkariak bilerarako deia egin duela. Batzordea bilerak egin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko balio osoz eratzeko, nahitaezkoa da lehendakaria eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkariak) eta gutxienez epaimahaikideen erdia bileran izatea edo urrutitik parte hartzea.

Idazkaria eta kide anitzeko organoko kide guztiak (edo, hala badagokio, haien ordezkariak) bertan badaude edo urrutitik parte hartzen ari badira, kide anitzeko organo gisa balio osoz eratu ahal izango dira bilerak egin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko, aldez aurretik deialdirik egin behar izanik gabe, hala erabakitzen badute kide guztiek.

Bileran daudenen botoen gehiengoarekin hartuko dira erabakiak. Berdinketak lehendakari jarduten duenaren kalitatezko botoaren bidez erabakiko dira.

Epaimahaiko kide titularren bat kanpoan edo gaixorik bada, edo, oro har, bidezko arrazoirik bada, ordezkoa jarriko da haren tokian.

Batzordeko buruaren eta haren ordezkoaren postuak hutsik geratu badira, bertan ez badira, gaixo badira edo legezko beste

bre, de Régimen Jurídico del Sector Público, o si hubiesen realizado tareas de preparación de aspirantes a pruebas selectivas en los cinco años anteriores a la publicación de la correspondiente convocatoria.

En la sesión de constitución de la Comisión de Valoración el/la Presidente/a realizará una declaración formal de no hallarse incurso/a en ninguna de estas circunstancias y acto seguido exigirá al resto de componentes una declaración formal en el mismo sentido. Los miembros de la Comisión de Valoración que no hayan participado en la sesión de constitución, así como los/as asesores/as especialistas, realizarán esa declaración formal en la primera sesión en la que participen.

